

Tokiko irratiak, herri-partaidetasunaren guneak

Arantza Gutiérrez
Kazetaritzan lizentziatua

Tokiko irratiak benetako alternatiba gisa azaltzen dira egungo komunikazio-alorrean, betiere –irradi libreen izpiritua errespetatuz– programazio-eredu zein kudeaketa berri eta eraginkorrak marnitzea lortzen badute. Horretarako, noski, hedabidea zerbitzu publiko gisa hartu beharra dago.

Irrati hauek, alde batetik, edukian zein esparru geografikoan, hurbiltasuna eskaintzen dute eta bestetik, boterearen mendekotasunetik ihes eginda, tokiko administrazioarekin lankidetzaz sortzen saiatzen dira komunikazio-proiektua aurrera ateratzeko, hori gabe ez baitira bideragarriak. Bestalde, tokiko irrati hauek herri-talde guztien partaidetza bermatu behar dute, bertako merkatarientzat publizitate-euskarri egokia eskaini eta programazio aberatsa eman, betiko eredu ezagunetik ahal den neurrian urrunduz.

Local radios suppose a real alternative in today's communication field, whenever they develop (respecting the spirit of free radios) new and efficient program models and management. To get that, media has to be considered a public service.

These radios, on the one hand, offer a closeness both in content and geographically, and on the other hand, avoiding power dependence, they try to establish a cooperation line with local administration to go ahead with the communication project, cooperation which is necessary for the feasibility of the project. Local radios have to guaranty the participation of all local groups, offer a good advertising support for the traders and give a broad program, running away from the usual known models, if possible.

Nire ustez, publiko eta pribatuaren arteko diferentzia gainditu beharra dago tokiko komunikabideez ari garenean. Hauetaz hitz egiteko kontzepturik zuzenena herritasuna litzateke, udal-hedabide hauek bai geografikoki bai antolaketa alorrean herriarengandik hurbilen egoteko ezinbesteko aukera baitute.

Euskal Herrian sortzen ari diren tokiko irratiek badute kopiatzeko aurreko bi eredu nagusi: irradi askeak alde batetik, herri-partaidetasunaren printzipioan oinarrituak; eta, bestetik, diru publikoaz finantzaturiko irratia, administrazioaren esku eta askotan aginte politikoen menpean daudenak.

Irrati askeak herritarren partaidetasunean oinarritzen dira, kudeaketari dagokionean zein programazioa ezar-tzerakoan. Hauetan herri eta auzo, talde, gazte, ekologista eta hainbat kolektiboren partaidetza handia da, eta antolaketa horizontala, ez goitik behe-rakoa (Marti i Marti 1990). Batzarrean barne-funtzionamendua antolatzen da eta irradi partaideek irratsaio-barrila ere erabakitzen dute. Hau irekia izaten da, talde edo pertsonen gustuak eta entzuleen interesak kontuan hartzen dire-larik. Produktu berriak egiteko aukera ere eskaintzen da, irradi konbentzionaletan lekurik izan ohi ez dutenek erren-tagarritasuna bermaturik ez dutelako.

Irrati askeen helburua manipula-ziorik gabeko zuzeneko informazioa ematea da, eta baita beste komunika-bideetara heldu ezin diren taldeen par-taidetza bultzatzea ere. Herri-mugi-menduekin konprometiturik egoten

dira: ekologista, euskararen aldeko erakunde, intsumisoekin... Ez dute oso programa garatua eskaintzen eta giza taldeen partehartzeari guztiz irekiak daude; irradiaren jabetza kolektiboa da, gizartearena¹, ez pribatua, eta ez dute etekin ekonomikoa lortzeko as-morik; ez dute merkatal publiztaterik ematen, baina bai erakunde eta taldeen komunikatuak edo oharrak (dohaine-ko publizitatea); Frekuentzia Modula-tuan emititzen dute (honek kalitate handiagoa eta dialean esparru zabala-goia eskaintzen die) eta emisio-indarra txikia izan arren (3-10 W) zabalkuntza lokala bermatzeko nahikoa da. Auzoko edo herriko entzuleei zuzenduta dau-de; hizlariak irratizaleak edota kazeta-ritza-ikasleak izan ohi dira eta ez dute soldatarik jasotzen.

Ezin ukatu funtzionamendu-era honek ere zenbait akats agerian uzten dituela, batez ere profesionaltasun falta, lan militantearen nekea, pertsona gutxiren arduraren eta halakoak... Zenbait irradi askeren ordezkariak egindako hausnarketan agerian utzi zuten, honek guztiak 80ko hamarkadan pil-pilean zegoen irradi askeen mugimen-dua apaldu egin du. Hauek azaldutako arazoaren artean, nagusiak honakoak ditugu: «bultzatzaileen nekea; irradi konbentzionalen ereduaren imitazioa, ezer berririk sortu gabe; gutxiren lana eta askoren delegazionismoa; talde mentalitatearen gabezia; irratiaz ardu-ra falta; eztabaida eta hausnarketarik eza...».²

Irrati askeen mugimenduak oso ga-r-rantzi handia izan zuen 80ko hamar-kadan Euskal Herrian; gaur egun oso

1. Zentzu horretan irradi askeek beren burua publikotzat jotzen dutela esan genezake, baina publikoak herritar guztion jabetza bezala ulertuta, ez administrazioarena.

2. *Ekintza Zuzena* aldizkaria (1993).

gutxik irauten dute ordea, hauetako batzuk udal irrati bihurtu direlarik, toki-ko administrazioaren babesean eta zenbait kasutan zerbitzu publikoaren ezaugarria galdu gabe, partaidetasunerako benetako topagunea eskainiz. Beste batzuetan, hasierako proiektuak berreskuratu dira, hauen bideragarritasuna bermatzeko publizitatearen salmenta baztertu gabe, hori bai, irrati pribatuen lehia basatian sartu barik eta oinarri nagusiei (zerbitzu publikoa eskaintzea eta herri-partaidetza bultzatzea) uko egin gabe.

Irrati publikoak: hiritarren zerbitzuan ote?

Maufred Jenke-ren ustez, «merkatutzako irrati entzuleari kontsumitzaile den neurrian zuzentzen zaion bitartean, irrati publikoak hiritarra du entzule».³

Irrati publikoak definizio klasikoaren arabera Administrazioak (estatu, autonomia edo udal-administrazioek) kudeatzen dituztenak ditugu, bai zuzenean eta bai horretarako sorturiko erakunde publiko baten bidez.

Badaude irrati publiko guztiei dagozkien ezaugarri amankomun batzuk: beren estatutuetan derrigorrezko baldintza bezala aniztasunak agertu behar du (aniztasun erlijioso, politiko, soziala eta kulturala), eta giza talde guztiek irrati publikoetan parte hartzeko eskubide bera izan behar dute. Praktikan irrati bakoitzak eskabide horren garapena artikulatzen du, nahiz eta horrek askotan talde batzuen bazterketa ekarri. Demokrazian aniztasun hori bermatzeko, hauteskunde-kanpai-

netan alderdi politikoei dohaineko tarteak utzi behar dizkiete, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren kontrolpean. Estatutuetan ere zuzentzeko eskubidea azaldu behar dute irrati publikoek, norberaren eskubideak babesteko.

Praktikan, demokrazia-sistemaren antolaketaren arabera, irrati publikoak askotan talde politiko nagusien, boto-kopuru handiena dutenen kontrolpean dauden bitartean, herri talde asko baztertua sentitzen dira eta irrati publikoa partaidetasunerako bitartekari jo beharrean inposaturiko komunikabidez hartzen baitute, zeinean parte hartzea debekaturik duten eta honekiko harreman bakarra entzutea ala ez erabakitzea den; boto-emaileak aukera bakarra duen bezala: hauteskundeetan bozkatzea ala ez, saritzea ala zigortzea.

Programazioa goitik behera eginda izaten da eta entzuleen aukera bakarra zigortzea (ez entzunez) edo saritzea (adituz) da. Arduradunek erantzun horretaz jabetzeko duten bide bakarra entzulegoen ikerketak izaten dira. Azterketek eskaintzen dituzten emaitzen arabera askotan edukiak banalizatu egiten dira, batez besteko gustu ertain bati erantzunez, irrati-saio edo irrati-eredu berriak frogatu gabe eta bere arrakasta frogatu duten produktuak eskainiz. Beraz, irrati publikoaren helburua bere mezua hiritarrari zuzentzea bada ere, pribatuekin lehiatzen du entzulegoaren zati bat bereganatzeko, nahiz etekin ekonomikoak lortzeko –publizitatea emititu ahal dutenean– nahiz eragin (politiko) handiago izateko; horrek eredu arrakastatsu eta askotan erabiliak eskaintzera behartzen ditu, eta asko dira irrati-

3. JENKE, Maufred; Rencontre 85.

-formularen eredia erabiltzen duten irrati publikoak: merkea eta onartua.

Publizitatea lortzeko lehian jokatu behar ez dutenean ere (dirulaguntza- ren bidez sostengatzen direnean), ez dituzte apustu berriak saiatzen eta produktu merkeak egiten dituzte; hau da RNEko *Radio 5 Todonoticias*-en kasua; Frantziar Estatuko *Radio Info*-ren eredia kopiatuz, produktu merke eta landugabea egin dute, eta zerbitzu publiko interesgarria izan litekeena aldrebeskeria bihurtu. Egunean 24 orduz informazioa eskaintzen duen estatu-irradi honek, kateak zuen egitura bera erabili du zerbitzua bikoiztuz eta langileengan inbertitu gabe. Honen guztiaren emaitza zera da: errepika- tzen den formula informatiboa, hots, estudioetara heltzen dena soilik eskaintzen duela (kaleko informazio zuzena ia jaso gabe), instituzionaliza- tuegia eta erritmo gabekoa, kopiatzen saiatu den ereduaren karikatura.

Baina hori ez da adibide bakarra; irratizaleek ezin dute *Radio 3* irratia- ren heriotza edo birmoldaketa basatia (kultur irratitik irrati-formulara pasatuz) oraindik ahaztu eta Euskadi Irratia edukitzearekin amets egin zutenek laster ikusi zuten entzuleen izenean egindako zatiketa: Gipuzkoatik euska- raz, Bizkaitik erdaraz, euskal irrati nazionala izateko asmoak porrot eginez. Honetan ere badirudi proiektua ez dela instituzionala izango, herri- ekimenaren bidezkoa baizik. Izan ere, sare nazional bat egiteko saio bakarra, irrati askeek 80ko hamarkadaren erdian *Hala Bedi* irrati librea eta *Tas-Tas* agentziaren bitartez egindakoa baita.

Irrati publikoetan beste arazo bat ere badago: funtzionarizazioaren arris- kua. Irrati publikoetan ari diren langile asko kazetari baino gehiago funtziona-

ri izaten dira; errutina batzuk finkatzen dira eta irratilari-ek albiste- instituziona- lizatu egiten dute (prentsaurreko, tele- tipo edo komunikatu- en bidez heltzen ez dena ez da berria), kaleko gertaere- kiko harremana galtzen dute, berriak sortzen diren unetik urruntzen diren heinean; jazoeren lekuko izan beha- rrean besteek azaltzen dutenaren kontalariak dira, zalantza jarri gabe, informazioaren objektibitatearen mi- toan sinestuta, edo, kasurik txarre- tan, agintzen duen boterearekin kritikoak izan gabe.

Tokiko irratia- k, herri- ekimena eta partaidetasunaren bitartekaria- k

Artikuluaren hasieran esan duda- nez, tokiko irratia- k bi eredu nagusitan oinarritu ahal dira: irrati askeak edo irrati publikoak.

1991n Espainiako Senatuak udal- irrati- en kontrolari eta negoziatioari buruzko lege- proiektua onartu zuen, honetan irrati hauen finantza- bideak publizitatea zein dirulaguntzak (udal aurrekontu- etako partidak) izango direla onartzen delarik. Lege honen arabera espainiar estatuan dauden 8.000 udaletako edozeinek Frekuentzia Modulatu- ko irrati bat eduki ahal du. Legeak 500 legalizatu eta beste 600 sortuko direla ere aurrakusten du.

1991ko apirilaren 8ko *Entzunezko Irrati- hedapenaren Udal Emandegien Kontrola eta Antolakuntzari buruzko* legeak arautzen ditu udal- irratiak. Honek FMko 107 eta 107,9 MHzetan kokatu behar direla ezartzen du (sal- buespenak daude) eta honako printzi- pio hauetan oinarritu behar direla dio: «informazio- en objektibotasuna, egia eta inpartzialitate- a», «informazioa eta iritzien ezberdintzea», eta «aniztasun

politiko, erlijioso, sozial, kultural zein linguistikoaren errespetua» (Villot 1985). Udal-irratia katea baten barruan sartzeko debekua ezartzen du, baina jabego publikoa duten irratietan ekoizturiko irratia-saioak onartzen dira (RNE edo Irrati Autonomikoen programak hain zuzen).

Kudeaketa udal-agintarien esku geratzen da. Hauek goitik behera egituratuta (erakundeetatik hiritarrarengana), beren funtzionariekin eta herritarren partaidetasun mugatuaz (elkarte batzuek parte hartzen dute irratia-saio batzuetan eta "aniztasuna" bermaturik dago). Irratia udaleko informazio-sare barruan sartzeko da eta informazioa udaletxetik kalera joaten da (ez alde-rantziz). Aniztasuna eta hiritarren partaidetasuna ordezkartzeko politikoaren bidez eratzen da (udal bilkurak edo alderdi guztiek osaturiko Kontseilu batek kontrolatzen dute tokiko irratia-aren funtzionamendua).

Aurreproiektu honetan, kudeaketa udal-irratiek zuzenean edo zeharka (beste erakunde baten bidez) antolatu ahal zutela aurrikusten bazen ere, Euskal Autonomi Elkarte Kultura Sailak 1994ko Martxoaren 22an onarturiko udal-irratien funtzionamendua arautzen zuen dekretuak asko mugatzen du udal-irratien aukera, hauei udal erakundearekiko lotura zuzena eskatzen baitie, 3. atalean eskatzen den txostenean besteak beste (EHAA, 1994/IV/7):

«...gestio zuzenaz tokian tokiko arautegiari jarraituz, zerbitzurako kudeaketa modua. Azken gai honi

dagokionez, zerbitzua eskaintzeko beharko den langilegoa zehaztuko da, baita langileok udal erakundearekin duten lan-harremana eta kanpotik akuratu beharreko zerbitzuak ere».

Hau dela eta, hiru udalek baino ez dute baimenik eskatu: Oñati, Arrasate eta Getxokoak hain zuzen ere (El Correo 1996/I/14).

Hala ere, Hego Euskal Herrian tokiko irratia gehiago daude martxan, hauetariko asko udalen babesean eta bertako taldeek bultzatuta. Zenbait kasutan, udalak inizatiba pribatuaren esku utzi du gestioa, babes legala eskainiz; baina irratia hauek Eusko Juarlaritzaren dekretuarekin legalitate kanpo geratuko lirakeke, hauen artean entzule asko lortu dituen *Durango Irratia*, eskualde osora zuzenduta dagoena hain zuzen ere.

Beste aldean, *Getxo Irratia*-ren adibidea dugu: Udalak eraturikoa, funtzionari-talde batek kudeatua eta herriarengandik urrun, getxotarren kopuru txikiak entzuten duena.⁴ Entzule falta honek proiektuaren errentagarritasuna eta iraupena kolokan jartzera eraman ditu politikariak. Programazio osoa eskaintzeko asmoz jaio bazen ere, une honetan goizez baino ez du eskaintzen, arratsaldeetan Euskadi Irratiarekin konexioa eginik.

Nafarroan, berriz, udal irratiei buruzko dekreturik ez dagoenez, daudenak legalitatea lortzeko zain daude, hauen artean *Euskalerrria Irratia*, FMko azken baimenen banaketan baztertua izan dena, euskarazko emanaldia duen Iruñeko irratia bakarra izan arren.

4. Getxoko Udalak 1991an eskaturiko inkesta baten arabera, % 50k baino gehiagok ez zuen ezagutzen udal-irratia-aren existentzia 3 urtez martxan egon arren, % 2ak egunero entzuten zuela erantzun zuen, kopuru hau asteburuetan % 10era heltzen zelarik, kirol-emanaldietan.

Herri informazioaren beharra eta garrantzia

Tokiko irratia, hiritarrendik hurbilen dagoena izateagatik, honen zerbitzura egoteko asmoa badu, herritarren partaidetasuna bultzatu beharko luke, bai kudeaketa- bai programazio-mailan, hau tokiko informazioan oinarritu beharko litzatekeelarik.

Tokiko Informazioa auzo, herri, hiri edo eskualde batean izaten diren ekin-tzei zein gertaerei dagokie. Batzuen ustez, honen barruan udal erakunde eta kirol, kultura eta beste motatako taldeek eskaintzen duten informazio instituzionala sartzen da, eta prentsaurrekoak zein ordezkarien adierazpenak informazio-iturri nagusi bihurtu dira eguneroko kale-jazoeren kaltetan.

Udal komunikabideetan, lau informazio-mota daude, Restituto Zorrilla irakaslearen ustetan (1988):

a) Informazio funtzionala

Informazio-iturria udaletxea da. Mezuak helburu bat izan ohi dute, udal administrazioaren funtzionamendua hobetzea. Edukiek ez dute homogeneoak izan behar eta gai administrazioez gain, beste gai batzuk ere aipa daitezke.

b) Berezko informazioa (bat-batekoa)

Informazio-iturria zehaztu gabekoa eta anitza da. Honetan eguneroko bizitzan izaten diren gertaerak sartzen dira, normalean pribatutik datozen gaiak. Eguneroko bizitzako edozer gauza albiste bihurtzen da. Hartzaila mezuak bidaltzen dituen gizartea bera da. Hemen oso garrantzi handia du zurrumurruak iturri bezala.

d) Elkarte-informazioa

Herriko talde zein elkarteek sorturiko informazioa. Iturriak honako hauek izan daitezke: alderdi politikoak, sindikatuak, kultur elkarteak, kirol taldeak...

d) Eguneroko bizitzan sorturiko informazioa

Komunikabidea iritziak ezagutzera emateko tresna eta eztabaidak biltzeko leku bihurtzen da.

Udal Irratien Koordinakundearen arabera, honako hauek izan beharko lukete udal-komunikabideen helburuak: (1) udal maila guztietan komunikazioa bultzatzea; (2) informatzea, tokiko informazioa ematea; (3) atsendenaldiko ekitaldiak ezagutzera ematea, kultura propioa zuzpertztea; (4) bizitza sozio-kulturala bultzatzea; (5) sormen-adierazpenerako lekua izatea eta (6) herriko enpresa eta merkatariei publizitate-euskarria eskaintzea (EMUC 1988).

Komunikabide hauek lehen pego-nariak egiten zuten lan bera bete beharko lukete, eta herriko plazetan bizi ziren ekitaldiak (eztabaidak, iritzi-azalpenak, interes handiko informazioak, e.a.) eta guztien partaidetasuna bultzatu. Baina gertatu dena zera izan da: komunikabide instituzional bilakatu dira, ez ditu herritarren interesak ezagutzen, eta kolektibo zein inizatiba asko baztertzen dira, ideologikoki egokiak ez direlako edo programazio-diseinuak berak kanpoan uzten dituelako.

Beste aldetik, irriti-saio barrila propioa landu beharrean irriti-formula eta beste irratietan arrakasta lortu duten produktuak eskaintzen dira, askotan

hizkuntza eta kultura propioak bazter-
tzen direlarik. Azken puntu honetan,
Kultura Sailaren dekretuak lehenengo
aldiz euskararen erabilpena arautzen
badu ere, gutxieneko kopuruak ezarriz,
beste aldetik gure hizkuntzaren erabi-
lera inkesten arabera neurtzen denez,
gune erdaldunetan elebitasunak ez du
gaztelaniaren nagusitasuna kolokan
jartzen.¹¹ Partehartzea ere mugatuta
dago, batez ere goitik behera egindako
saioetan, eta askotan eskaintzen diren
zerbitzu publikoak farmazia-zerrendak
edo agenda irakurtzea baino ez dira.

Hala ere, baikor izan beharra dago,
herri-ekimenaren bidez sortzen ari
diren irratietan tokiko informazioa eta
partaidetasunari leku handia eskain-
tzen baitzaie, baina hauek udalen
babes juridikoa lortzen ez badute ez
dute oso etorkizun argia, behin-behine-
kotasunak eta honek leharzkeen ondo-
rioek (publizitate eta dirulaguntzarik
eza, profesionalizazio gutxi...) itoko
dituzte eta.

Finantzabideak eta independentzia edo menpekotasuna

Tokiko irratien finantzabideak eragin
handia izan dezake hauen indepen-
dentzia edo menpekotasun ideologi-
koan. Legearen arabera, tokiko irratiek
hiru motatako finantzaketan artean
aukera dezakete: udal aurrekontuak
edo dirulaguntzak, publikitatea edo
biak batzen dituen sistema mistoa.

Irrati publikoa aurrekontuetatik soilik
bizi denean menpekotasun edo presio

ideologikoa handia izaten du, langileen
gainean ez bada, bai entzuleen ikus-
puntutik, hauek askotan irratia agin-
tarien eskuetan dagoen tresna ideo-
logikotzat hartzen baitute. Beste
aldetik, diru-sarrerak bermaturik izatea
programazioan ere nabaritzen da; alde
batetik, ez dira iragarleak erakartzeko
produktu interesgarriak egiten (moti-
bazio baxuagoa izaten da) eta lana
funtzionalizatu egiten da. Beste al-
detik, aurrekontuak murrizten direnean
produktua ere merkatzen da eta
gutxien kostatzen diren irradi-saioak
eskaintzen dira, nahiz eta kalitate
txikiagokoak izan. Herri agintariek
bestalde aurrekontuen murrizketaren
mehatxua egin dezakete, irratia beren
interesaren arabera erabiliz.

Diru-iturri bakarra publizitatea de-
nean interes ekonomikoaren menpekota-
suna eman daiteke, iragarle handienen
presioa eta, hauek galduz gero, itotze-
ko arriskua. Askotan, hobekien saltzen
den programazio bat eskaintzen da,
edukien kalitatea kontuan hartu gabe.
Entzuleak erakartzea da garrantzi-
tsuena, iragarleei entzuleen kopuru
altu bat saltzeko asmotan. Lan-ondo-
rioak ere urriak izaten dira, irradi-saioen
iraupena errentagarritasunak ezartzen
duelarik.

Sistema mistoa agertzen da eredu-
rik onena bezala. Batetik, udal-aurre-
kontuek irradi-zerbitzuaren iraupena
ziurtatzen dute; bestetik, publikitatea
lortzeko beharrak irradi-saio erakar-
garriak egiten eta kalitatezko programa-
zioa bultzatzen du. Diru-sarrera hauei
esker, irradi bat edukitzea ez zaio

5. EHAA, 1994/IV/7; 1994ko Martxoaren 22ko Dekretuak zera agintzen du euskarari buruz: «Irrati-
-baimena dutenek aipatutako interes publikoa errespetatu dezaten, beharrezkoa izango da beti euskara
agertzea. Euskarak gutxienez izan beharko duen agerraldia zehazteko EUSTAT Erakundeak urtero
argitaratzen duen Euskal Estatistika-Urtekariaren azken alean udalez udal jakinarazten diren datuak
erabiliko dira, bertan azaldutako multzo euskaradun jakin guztien portzentaien batuketaren arabera
izanik euskararen gutxieneko erabilera portzentaia».

gehiegi kostatzen herriari eta, gainera, publizitateak udal bizitza ekonomikoa ere indartzen du; iragarle txikiek (dendariek, autonomoek) beren zerbitzuak

ezagutzera emateko aukera dute eta hiritarrek ezagutzekoa (azken finean, hau ere informazioa da).

Bibliografia

- Aguilera, Miguel, (1985): *Rádios libres y radios piratas*, Forja, Madril.
- Basset, Luis, (1981): *De las ondas rojas a las radios libres*, GG Mass Media, Bartzelona.
- Gorostiaga, Eduardo, (1982): *El Estatuto de la Radio y la Televisión*, Forja, Madril.
- , (1988): *Legislación básica de radio y televisión*, Tecnos, Madril.
- Lewis Peter M. eta Booth, Jerry, (1992): *El Medio Invisible. Radio pública, privada, comercial y comunitaria*, Paidós, Bartzelona.
- Marti i Marti, J., (1990): *Modelos de programación radiofónica*, Feed Back, Bartzelona.
- Núñez Mayo, Oscar, (1980): *La radio sin fronteras*, EUNSA, Iruñea.
- Peñafiel Saiz, Carmen, (1992): *Las radios autonómicas y transformaciones de la radio entre 1980 - 1990*, UPV-EHU, Bilbo.
- Peñafiel, C., Zabaleta, I., Castilla, M. (1992): *Innovaciones en programas de Radio y T.V. (III Jornadas Internacionales)*, UPV-EHU, Bilbo.
- Prado, E., (1983): *Las radios libres. Teoría y práctica de un movimiento alternativo*, Mitre, Bartzelona.
- Redfern, B., (1984): *Radio emisoras locales*, Bartzelona.
- Vidal Beneyto, J., (1979): *Alternativas populares a las comunicaciones de masa*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madril.
- Villot, R., (1985). *Recontre 1985. 8ª Semana Internacional de Estudios sobre la Radio*, RNE.
- Zorrilla, R., (1988): "Información y comunicación en el ámbito de las comunicaciones locales", UPV-EHUko Udako Ikastaroak.